

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### Plantillako lan kontratuko langile finko izendatzea

Bo200825. 2020ko otsailaren 27ko balioespen batzordeak, Zerbitzu Anitzeko Ofizialeko bi (2) plaza, txanda librekoak, oposizio-lehiaketaren bidez hautatzeko espedientean, txosten bat egin zuen, eta txosten horren ondorioa da ez dagoela datu objektiborik batzordeak negatiboki ebaluatzeko Antonio Recio Gilen trebetasunak eta gaitasunak praktikaldian.

Alkatearen otsailaren 28ko Ebazpenaren bidez, lan kontratuko langile finko izendatu zen Antonio Recio Gil, Zerbitzu Anitzeko Ofizialeko lanpostu bat betetzeko (lanpostuaren izena LPZn: LB/OSSM/AP/XX/16/1XX/1). Plantillako lan kontratuko langile finkoaren kontratuak 2020ko martxoaren 1eko eraginkortasun data dauka.

2020ko apirilaren 27ko balioespen batzordeak txosten bat egin zuen, eta txosten horren ondorioa da positiboki ebaluatzea Luis Echeverría Olaizolaren trebetasunak eta gaitasunak praktikaldian.

Alkatearen apirilaren 27ko Ebazpenaren bidez, lan kontratuko langile finko izendatu zen Luis Echeverría Olaizola, Zerbitzu Anitzeko Ofizialeko lanpostu bat betetzeko (lanpostuaren izena LPZn: LB/OSSM/AP/XX/16/1XX/2). Plantillako lan kontratuko langile finkoaren kontratuak 2020ko maiatzaren 1eko eraginkortasun data dauka.

Lanpostuek honako ezaugarri hauek dituzte: taldea: Talde Profesionalak; destino-osagarriaren maila: 16; Udalhitz maila: 8; erabateko prestasun-osagarria: ehuneko 15; hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe.

Lanpostuetan bete beharreko eginkizunak hautaketa prozesua arautzen duten oinarrietako bigarrenean zehazten dira -ALHAOn argitaratuta: 75. zenbakia, 2018ko ekainaren 29an, 2.344 zenbakiko iragarkia-.

Hau argitaratzen da hautaketa prozesua arautzen duten arauen hamabosgarren oinarriko 4. apartatuaren arabera.

Alkatearen ebazpenen aurka, zeinek administrazio bidea amaitzen baitute, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organo berari hilabeteko epean, bat etorri administrazioen publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Aukerako berraztertze errekurtsorik aurkezten ez bada, bide judiziala irekita geldituko da, eta administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako txandako epaitegian, bi hilabeteko epean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auziak arautzen dituenak, 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin.

Oion, 2020ko abuztuaren 25a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA CABEZÓN**